DEUNEN BIXITZA

Astelena. Pillipa eta Jagoba gastia, Beldubak

Ofila-lenenguan Beldu biren jaya ospatuten da, Pilipa eta Jagoba gustiarena.

Pilipa Josu'ren belduben aftian boskafena da. Josu-Kisto'k Jon Ugutzarijaren ugutza aftu ta geroko baten, Jon'ak ikusi ta atzamafaz atzeztaurik, bere jafaĩun ikasliai erakutsi leutsen, esanik: "ara Urtzi Jaunaren bildotsa gixadi-obenak kentzen dauzana". Ikasletariko bi, Ander ta Jon, jafain yakazan Josu-Ksto'ri eta gaba egin leben berarekin. Bigaramon, Ander 'ak Simon Kepa anayari esan leutsan; eta etzi, Josu-Kisto Galilai'rako zala, auferik ara egin yakan Pilipa. Josu'k "afaikit" iño leutsan. Pilipa ordutixek jafaĩn yakan, bere buruba Josu-Kistofen jafaĩun zintzua egiñik, bata jafaĩun-bilatzale arduratsuba be bai. Ufenguan, ba, Pilipa'k Natanel, lagun adizkidia idoro leban, eta abotik ara, "Josu-Kisto, nazaretafa, Joseba'ren semia, Lagijak eta Iragafliak iragifiĩakua, Dabi' ren belaundafa, yafugi yuagu", esan leutsan, eta Josu-Kisto'gana ekafi leban.

Pilipa Galilai'ko betsaidatafa zan, Kepa ta Ander'en urikidia. Josu-Kisto'ren jafaĩun zintzua lenengotan, gero beldutan boskafena; Josu-Kisto'k bere jafaĩunen aftian amabi autetsi leuzanian.

Josu-Kisto'gaz dizkidero jarduten leban Pilipa'k, Beñola Josu-Kisto'ri jafai lagunabaf-taldiak ibili ziran. Ibili ta ibili, nekatu egin ziran eta gose ixan. Jatekorik eleukela-ta, Josu-Kisto'k Pilipa'ri "¿Nun erosiko yoguzak ogijak—itandu leutsan—, onei gustijoi jatekorik emoteko?" Beste bein, txadonan legoala, gerkafak ufbildu ta Josu ikusi-guraz, Pilipa'gana jo leben, eta Josu-Kisto ikusi ta eraso itz-egiteko abagaduna gura lebela esan leutsaen. Pilipa'k Ander'i iño leutsan, eta Ander eta bijak, Josu-Kisto'ri. Azken-apari-ostetan, Josu-Kisto'k ikasliakin jarduten lebala, Piipa'k "Afea erakuskeguk—iño leutsan—, eta naiko yuagu". Josu-Kisto'k, bafiz, "Pilipa, ni nayakusanak nire Afea, be, ikusi yakusk".

Josu-Kisto ilpiztu ta Afearen eskumaldera igonezkero, Pilipa'k, beste lagunakin, Judefijan Josu-Kisto'z edasten jardun leban. Gero, Beldubak banandu ziranian Pirgi-aldetara jun ei-zan. Emen Josu-Kisto edatsi leutsen pirgifafai eta Josu-Kisto 'gazko ziñeztedun asko egin. Gero jaungixun-gufzalak, oratu ta atxilotu egiu leban, eta gurutzian josi. Gurutzian josirik legola, luf-ikara andija egin zan, eta ziñestebakuak, luf-ikareak ixuikaratuta, alde -egin leben. Ziñestedunak arian gurutzetik eskegi ta arduraz aftu gura ixan leben; goiko Jaunak baña, Pilipa beldu zintzua, gurutzetik eratzi orduko, bere atsegiñaldira eruan leban. Bere gorpuzkiñak Constantin urira eruan ziran, eta gero Efoma'ra: antxe ioftzirik dagoz Amabi Belduben ixeneko txadonan.

卐 卐 卐

Albai'ren Jagoba, edo Jagoba gastia, Zebedai'ren semia ta Jon'en anaya zan Jagoba'z berezteko eretxija, Josu-Kisto'ren aidia zan eta anai-ixenaz ezaguna, ez anaya zalako, aidia edo abidia baño. Albai eta Miren'en semia zan, eta bere anayak Joseba, eta Juda, eta Simon ixan ziran.

Noiz egin zan Josu-Kisto'ren ikaslien aftian eztakigu, jakin be; lastef, baña, edo Jon'en ugutzaz lasteftxe ixan zana, bai, Kepa'k Juda kerijotafaren ordezkua autetsi biaf lebenian esan leban letz.

Josu-Kisto befbixi zanian, Jagoba aidiari berariz agéftu yakan; eta beldubak ludi zabalera zabaldu ziranian, Jagoba gastia Jerosolin'go gotzain autetsi ta egin leben. Jerosolin'en bixi ixan zan, ba, Josu -Kisto'zko ziñesmena zabalduten eta judaf kistaf bafijak zaintzen. Judafetarik asko kistaftu ziran, eta nagusijetarik, eta parixetafetarik, eta jauparijetarik, be, beredin, Oneratiko batzuk baña, Mois'en lagija jerefiari gatxesten leutsaen, eta kistaf-lagijaz batera erabili ta nastetan leben. Mois 'en lagija etzan, ixan, be, txafa edo okefa, utsala baño. Jagoba'k, judafai kistaf-lagija efezbidetuteko ta gaiztasuna gurinduteko, lagikerijak, biefezkuak ez eritxi-afen, laketuten leutsezan. Aretariko batzuk, baña, Mois'en lagija be biafezkua zala-ta asi ziran, eta kstaf bafi gustijai, nai ta gixendaidetafetatikuak zirala, agindu biaf yakela gogof egiten leben. Paul eta Barnaba igon ziran Jerosolin'era akatz ori kentzeko. Batzafa egin zan. Simon Kepa'k gixendaidetafak mois-lagijaz azke zirala erabaki leban. Jagoba'k afendan, Simon Kepa'ren erabakija onetsirik, auxe bakafik gixendaidetafai irautsi biaf yakela erasan leban, apotobenetatik, odoletatik, ifoetatik eta jaungixun-sayetatik alde egifeko, bai. Eta Jagoba'ren eritxija batzafak onetsi leban.

JARDUKIXUN SABINDARRA

Euzko - Laterri - itungidetza

JEMEIN'DAR KEPERIN

Onek bijok, Durango ta Orozko, Bizkai'tik aldendu ziran euren gurariz, eta euren gurariz be Bizkaya euren amagana biguftu ziran, jatofiz ta ixatez biaf zan eraz. Bizkafafak poztuten gara ofegaz.

Baĩa Bizkai'tik "aldenduteko eskubidia" erabili eben, iñoz bafiro ez alkaftuteko, efi onexek: Aramayona'ko arana, 1.489 gn. urtian eta Okendo arana, Araba'ri batuteko. Ta abaf. Bizkafafak minduten gara aran ofek Bizkaya zan bere ofpotik aldendutiaz; baña eskubidia bai-ebela autoftu biaf dogu.

Eta azkenez, Euzkadi deritxogun Lateri-Itungidetzatik Lateriren bat edo beste azkatuteko eskubidiatzaz jardun daigun. Olakorik etzan iñoiz be geure edestijan jazo, len esan dodan lez, Euzko-Lateri -Itungidetza etzalako Euzkadi'n ixan, nai -ta aldiren baten Euzko-Lateri batzuk Bakaldun berbera euki.

Lateri-Itungidetza, ba, ezeben geure asabeak softu, zoritxafez. Abando nire Efkaldafi maĩian jayoriko Arana-Goiri anayak ixan ziran euzko-abendefijaren batasun ori softu eben lenengo euzkotafok. Gero, abeftzale gustijak eta Euzko-Alderdi Jeltzaliak ontzat aftu dabe.

Onezkero, bai-dogu ikusi zelan Irakasliak Euzko-Lateri-Itungidetza softu daun edestijan azke ixan ziran sei Latefijai, azke ixateko edesti-eskubide ori jaboten yako; gero, Itungidetzaren bafuban biafkun eta eskubide berberak daukez; eta, alkaitu ta bananduteko eskubidia ta azkatasuna.

Euzko-Latefijak, ba, euren gurariz batuten ba-dira, abendaz anayak dirala ta batutia ondo yatofkela ezagutzen dabelako, eztira bafiro aldenduko, euzko-gogua galduko eztaben aftian.

Baña ona emen zelan nozonoz aldenduteko eskubide ori, ez bakafik ona, biafezkua baño ixan leteken: abeftzaliak garanezkero, min-aftuko dogu latefiren bat Batza'gandik aldentzen ba-da, euzko-gogua galdu egin daulako ta ofegaz abendefi osuari kalte-egiten ba-dautso; baña kaltegafijagua ixango zan bestetara jazoko ba 'litz. Esaterako, Lateri geyenak euzko-gogua galduko ebela-ta, Itungidetza-lagija ausi gurako ba'lebe Abefijaren zorijonaren kaltez, ta aldenduteko eskubidia ukatuta, Jel'bian bixi gura daun enparau latefijari indafez biaftuko ba'leuskijoe eurekin batera lexa-bidetik juaten.

Ondo begiratu biaf dalako, len esan dodan eta orain befesan gura dodan lez, Irakasliaren irakaskintzea, abeftzaletasunaren ortzian argi distiratsuba egiten dauna: "Euzko-Abefijaren osotasuna ezta bere lufaldiaren osotasuna, bere ikufitzaren osotasuna baño: JAUN-GOIKUA ETA LAGI-ZAFA. Geure mendi onetan irasiriko Euzkadi bat, ikufitz ofen oñafirik eztaukona, ori ezta Euzkadi. Ostera, baña; Ludiko edozein aldetako luf-zati bat, ikufitz ofegaz batzauriko sendi batzuk bertan bixi dirala, orixe da Euzkadi benetakua."

Beraz, abeftzaletasunaren bidez, Lateri bat ezta Lateri-Batza'tik aldendu biaf, beste Latefijak Batza-Lagija austen ezpa -dabe, edo batzauteko zijua irauten ba-da. Baña ostera, Lateri batek aldenduteko eskubidia erabili dafeke, ta ganera erabili biaf dau, beste Latefijak Batza-Lagija austen ba-dabe edo bide txafetatik zuzendu gura ba-dabe ta berak: Jel'bien jafaĩu gura ba-dau Abefijaren osasunerako ta zorijonerako.

Abefkidiak: geure bafuban erabili daiguzan beti abeftzaletasun sabindafaren gogua ta mamiña; eutsi dayogun sendo Sabin'ak erakutsi euskun abeftzaletasunaren oñafijari. Eta beroni begiratubaz, erabili daiguzan beti Jel-aldez Abefijari yagokozan aftu-emon gustijak.

Batzaustia edo Batzatik aldentzia kaltegafija da abeftzaletasunerako, Abefi osuaren zorijonaren kaltezkua ba-da. Onakoetan batzauste ofen aufka jafi biaf gara gu, euzko-gogua jabonik. Baña Abefijaren zorijonerako ba'litz, euzko-gogua bere ifufburutik aldenduko ba'litz, abendefija bide txafetatik ibilten asiko ba'litz Jel'en kaltez ta Abefijaren zorijonaren kaltez, orduban, abefkidiak, geure zorijonaren kaltez duan gaiztotasunaren auka jagiĩia ta aldentzia bidezkua da ta jagi biaf gara. ¡Abefi-zorijonaren aldez danon aufka!

Irakaskintza sabindafaren Elburu gorena Euzkadi geure Ama gaizkatuko dauna, esakun labuf onetan biribildu leteke: Euzko-Aateri-Itungidetza eralduteko.

ITZ BATZUK AMAĨU BAÑO LEN.—NEURE ABURUBA

Onezkero, neure jafdukixuna amaĩu biafko neban, Euzko-Lateri-Itungidetza, Arana-Goiri'k eraldu eban lez, txafto ala ondo atzaldu dodalako. Baña amaĩu baño lenago, beratzazko neure aburuba esan gura dot, apal-apalik ba-da be.

Eztabaida aundijak erabili dabez abeftzaliak gai onetzaz, ta asko dira minduten diranak geure asabeak lateri batzutan bananduta bixi-ixan ziralako, ta iñoiz be lateri bat osotu ezebelako, uste-ixanaz ori abendearen okef aundija ixan dala. Eta ofegaĩik abeftzale batzuk ixan dira batasuna egiĩia gura ixan debenak, Lateri bakafaren bidez, euzko-edestija ta Sabin'en irakaskintzea alde batera itxiĩa.

Ori ixan da abeftzale ofek uste-ixan dabelako, Arana-Goiri'k edestijan bakafik aufkiĩu ebala Euzko-Latefijak bata bestiagandik azke ixateko eskubidia, 1839 ta 1789'gko. lagijak baño lenago bixi-ixan ziran lez. Eta ofegaĩik diñoe, edestija eztala ontzat aftu biaf edestijori gaiztua ta galgafija danian, uste-ixanaz Lateri-banantze ori oso kaltegafija ixan zala ta geure asabaen okefik aundijena.

Baña eztabe ikusten Sabin'ak ezebala edestijan bakafik sendotu bere Euzko-Lateri-Itungidetza; berberak diñosku, ba, Itungidetza ori Edestijan etzala iñoiz be ixan, eta, beraz, Itungidetzaren oñafijak iragifeko edestija eztala naikua.

Beraz okef dagoz abeftzale ofek, Sabin'ak ezebalako bere Itungidetza edestitik atara, euzko-abendearen gogo ta zustefatetatik baño. Euzko-abendea azke ta bere-buru zanian, bere goguak erazota, sei latefijok softu euzan, azke atzefijagandik eta azke bata bestiagandik be. Sabin'ak ezeban egin, ba, abendearen bidiari jafaĩutia baño, abendea euzko-gogua galtzen asi zan une bertatik, ingurubetako afotzakin nastetan asi zalarik. Sabin'ak Euzko-Itungidetza eralduteko euzko-gogua ondo adiraldu eban lenengo, ta abendearen azke -zaletasuna ta efkaltzaletasuna ikusirik, ontzat aftu ebazan onek. Eta abendearen ekintzeari jafaĩu ta ekin eutson.

Olan ulertu eben lenengo abeftzaliak, eta olan ulertu ixan dot nik beti.

Baña noberen aburuba ezta naikua abeftzaletasunaren gayetaz iñarduteko. Onakoetan, noberen aburuba sendotu egin biaf da Sabin'ak zelan uste-ixango eban aratakubaz ta aztertubaz. Eta bere idazkijetatik atara ezin dogunian biaf dogun argija, aren ustia ondo ezagutzen dabenai itandu biaf dautsegu.

Zorijonez, ta Jaun-Goikua'ri eskafak, oindiño geure aftian bixi da geure Koldobika, lenengo abeftzalia ta Sabin bere anayaren ustia ondo ezautzen dauna. Berari, ba, zuzendu nayako, ta neure aburuba sendotu daust. Beraz, Sabin'eri irakufi ta Koldobika'ri entzunda, neuk eztot orain arazo onetzaz ezpai edo zalantzarik bape.

Eta gauza bat esan daiket, orain afte ufian iñok esan eztauna. Arana-Goiri anayak ondo adiraldu eben, bai, euzko-edestija, edesti osua; ta abeftzale geyenai lenengo begiradean jazoten yaken lez, eurek be mindu ziran euzkuak bananduta ikustiaz, ta banantze ori abendearen okef aundi bat ixan zala uste-ixan eben. Baña lastef-bai-lastef, begijak zabaldu yakezan eta adimenak argiĩu. Eungijetatik ziaf abendearen bidetik ibilten asi ziran; bere edestija ziatz aztefiu eben eta euren begi zolijekaz ta euren adimen-argijaz ikuskixun osua ikusi eben argi ta garbi. Eta bijotz-bafuban Abefijaren itxaropena afapatu eben. Orduban, bai, ulefiu eben abendearen goguaren aufka ezin lefekela juan. Eta azkatasun-eungijetan euzko-abendearen goguak egiña ezin lefekela ausi, apuftu ta ezereztu. Abendea, ba, bere-buru zanian eta bere burubaren duña zanian bere goguari yagokan lez, sei Latefijok eraldu ebazan: Araba, Bizkaya, Gipuzkoa, Nabafa, Laburdi ta Zuberoa.

Bere goguari yagokan lez esan dot eta olantxe da, xan be. Abenda bakotxak bere gogua dauka, bere gogo berezija, ta gogo oferi afesija ezaftia itxasuari ezaftia lakoxia da. Beraz, geure zaletasunak eraginda, ezkafezan amesetan asi, esaten: "au olan egingo ba-eben edo "ori alan ixan ba'litz". "Ba'litz,,'eko "Bai'da,'ra jatsi gafezan, antziñeko geure esakun zafak diñon lez "Ba'litz,,'eko oleak eztaulako burdiñik emoten. Itxi daiguzan amesak eta ixanera jatsi gafezan.

Antzin-antziñeko eungijetan, inguruko efijak oindiño bixi etzirala, euzko abendea bere-buru bixi zan mendi onetan, ezetariko nasterik baga, garbi-garbi ta euzko -euzkua. Eta aldi aretan, afotzakin zaletuten asi baño lenago, ¿zer egiten eban geure abendeak? Ikusi daigun, ba.

Euzkotaf arentzako, sendija zan nagusi gixaftietan. Sendijak, batuteko biafa susmetan ebenian, auzoko beste sendijakin batuten ziran berez efi bat egiteko eskubide berberaz. Efijak, alkaftuteko biafa susmetan ebenian, ingurubetako beste efi batzukin alkaftuten ziran efkija egiteko eskubide ta biafkun berberaz. Eta beronelan be, efkijak beste efkijakin itunduteko biafa susmetan ebenian berez itunduten ziran Efkala edo Latefija egiteko. Baña beti euzkotafak euzkotafekin, idekuak alkafekin batuten ziran, eurek bai-ekijelako anayak zirala, ele berbera erabilen-eta. Beti baña euren gurariz, azkatasunaz alkaftuteko ta azkatasunaz bananduteko, eskubide ta biafkun bardiñak ebezala, aundiĩasuna ala aberastasuna atxakija etzalarik.

Ori egin eban, ba, geure Abendeak, afotzak inguratuta aren goguarekin nastetan asi, ziran-aftian. Eta ordu onetatik ostera. asi zan bere galbidia.

Euzko-gogua abendeak galduko ezpa -eban, afotzakin nastetan asiko ezpa'litz, bere bidiari jafaĩu baño, sendijak eta efijak eta efkijak egin eben lez, Euzko-Latefijak be itunduko ziran alkaftuteko ta Itungidetza egiteko. Eta jakiña, aren antzera egingo eben: batuteko ta bananduteko azkatasun bardiñaz, ta eskubide ta biafkun berberak eukiko ebezala.

Eta Sabin'ak, ¿zer gin eban, ba? Orixe berorixe.

Euzko-abendearen gogua makaltzen asi zan aldi aretara bere begijak biguftu ta ordutik bere Edestija jafaĩu, Jel-bidez, Euzko-Lateri-Itungidetza eralduteko, geure asaba zafak, geure gurasoen gurasuak egingo eben antzera.

¡Aintza, ba, ta aintza Abefijaren Gaizkatzaliari!

Atanasi deuna, Alexandria'ko eleiz -aitagoya (patriarka)

Kisto'ren jafaitzalien artean izan diranetan adimenik zofotzenetakotzat eta Eleizaren zutaberik sendoenentzat daukae Atanasi deuna. 294 gafen urtean jayo zan Alexandria'n. Aundizkietakoak zitun gurasoak eta txikitatik ikasketan jafi eben mutila.

Giza-jakintzetan oso ernea agertu zan; auferakuntza aundiak egin zitun; eta Alexander deunak, gaztearen argitasuna oarturik, eleiz-jakintzetan ere beronelan gaitzeko bidean ipiñi eban. Ofatio, ikasketai egokienez gañera, gogoa ondasunez apaintzen ere alegindu zan gaztea. Geroago ta apalago; aziago ta santuago agertzen zan.

Ogei-urtedun zala, liburu aitagafi bat idatzi eban Josukisto'ren gizatasunatzaz. Garai onetan Alexander deunak bere idazkaritzat eta laguntzaletzat artu eban. Arek egin eban apaiz eta gaztearen luma egokia eleziafen eta beste sinesgabe askoen aurka zuzendu eban.

Eleizafen arerioetan amofatuena Afio zan ordun. Baukala'ko eleizako txaunburu egoan au Alexandria'n. Aren afokeria ta biufikeria zigortu nairik, bere eleizaren zaintzatik aldendu eban Kepa deunak. Andik bereala il zan Kepa eta Akilas deuna izan eban ondorengo. Gizon ona ta biotz -zabalekoa. Damuk ta buru-makuf aurkeztu yakon oni Afio zigortua. Onen esanak sinestuz, lengo eleiz-zaintzara itzuli eban Akilas deunak eta eleizaren buru izendatu. Aurki gañeztu zan bafiro gizonaren afoa ta gaiztakeria. Txaunburu izatea bere buruarentzat gitxi-iritziz, patriarka izan nai eban. Ofez gañera, Josukisto'ren jaungoikotasuna agirian ukatu eban. Eleizaren etsairik amofatuenetakoa biurtu zan Afio au.

Adoretsu jaiki zan Atanasi deuna arek egian lan gaiztoa ta biufikeri zitala ezereztu gurarik. Ordun bildu zan Nizea'ko eleiz -batzafa. Ara joan zan gure deuna ta kementsu aldeztu eban sinismen garbia. Eztabaida entzutetsuak euki zituan Afio 'kin. Eleiz-batzafak bidegabekotzat epaitu eban aren alderdia, eta bidezkoa zanez, gaiztetsi.

Eleiz-batzaf au amaituta bereala il zan Alexander deuna ta onen ondorengo Atanasi deuna izendatu eben ao batez efiak eta eleizgizonak Alexandra'ko eleiz-aitagoi (patriarka).

Afezkero, gotzaintzak ditun eginbeafak betetzen zuf eta erne jokatu zan. Bere zaipeko lufaldeak zabalak izanik ere, urteoro ikertzen zituan. Artzai arduratsua izan zan etengabe. Bere izaera ere biguna ta efukiofa zan. Gurasoen ondareak ekarkiozan ondasunak txiroen eta ezeukien artean zabaltzen zituan.

Bien bitartean, Konstantin bakaldunak, Nizea'ko eleiz-batzafaren epaya onetsiz, bere agintefitik at jaurti eban Afio biufia. Onek, baña kaisefgayarengana jo eban labankeri utsean. Baita gazte ezjakiña atzipetu be. Zigofa aldendu eutsoeneko Alexandria'ra itzall zana. Bakafik ezef ezin -eta, kistafai biziago eraso nairik, meleziatafakin alkartu ziran afiotafak. Latefiaren areriotzat salatu eben, lenengoz, Atanasi deuna. Ez yagoken zerga batzuk ezafi eutsezala ejitoafai Eleizarentzat ondasunak biltzeko. Alipi ta Makari eleizgizonak erakutsi eben salakuntza onen bidegabekeria.

Alabere etzan of atertu arerioen maltzurkeria. Guzufak or-emen oparo ixuriz geroago ta zitalago jokatu ziran. Kaisefare gana zuzendu ziran, azkenik, ariotafak. Palestina'ko Kesarea-urian eleiz-batzafa egiteko baimena lortu eben. Etzan batzaf ofetara agertu Atanasi deuna. Au zala-ta, afokeri-usaña ta aginduetarako lafegizko zutitasuna egotzi eutsoen, agintariaren biotzean gofotoa biztarazi gurarik.

Ufengo urtean beste eleiz-batzafa antolatu eben eta kaisefaren agindu berezez Atanasi deunari deitu eutsoen batzafera. Aurkeztu zanean, gaizkileak auzi-bitartean egon oi diranez, zutik egoteko agindu eutsoen. Afiotafak an ixuri zituen guzufen artean Arseni'ren erailketa egotzi eutsoen ari. Batzafaren aufean egite au salatu eben unean ara nun agertzen dan usteagabean bizirik eta osasuntsu Arseni berbera. Lotsaren lotsaz lertzeko beste bai zan; baña geyagorakoa zan Atanasi'ren arerioen gaiztakeria.

Gure deunaren izen garbia loitu ustez, emakume zirtzil bat eruan eben batzafera salakuntza lotsagafi bat egiñaz. Emakume au aretora sartu zaneko, (ezpai eban ezagutzen Atanasi) deunaren adizkide bat bideratu yakon eta batbatean yaulki eutson: "Ni al-naz zu, indaf bidez beartu zaituana"? Eta emakume zirtzilak negafari erasoaz gafaska oyu-egin eban: "Bai, zu zara nire ondatzalea". Ara zelan nabarmendu zan salakuntza onen zitalkeria be.

Auferago jafai eben oraindio be gogo -biufidun pufukatuak. Orduko kaisefak eregia da Kostantinopolis deritxon uria. Ori dikuf gerkeraz itz ofek: Konstantin 'en uria. Konstantin kaisefak, ba, afeta biziz artzen zituan uri oni egokiozan arloak. Belafondora guzufak jaurtiz uferatu yakozan bafiro be Atanasi'ren salatari zitalak. Alexandria'tik Konstantinopolis'era eruan oi eben garia ateratzea galerazo ebala ango gongotzañak esan eutsoen. Oso asafatu zan kaisera ta, salatuari deitu ta entzun barik, Treberis'era jaurti ta erbesteratu eban.

Konstatin il zanean, bere semeak Atanasi'ri deituz, zigofa aldendu eutson. Aundikiro ospatu eben efiak eta eleizgizonak gotzafaren biurketa. Bereala atertu zan, ofatio, pozaldia. Elez-batzaf bat egin eben eleizgizon biufiak eta Kapadokia'ko Gergori izendatu eben Alexandria'ko sasi-gongotzain. Indafez sartu zan au urira ta eleizak bereganatuz lapurketa izugafiak egin zituan. Efoma'ra joan zan igesika Atanasi deuna. Mateki artu eban orduko Doipuruak eta ari entzun ondoren eleiz-batzafa bilduz Atanasi ogengabekotzat epaitu eban eta sasi-gotzaña Alexandria'tik jaurti ta gaiztetsi.

Etengabeko jazarpenetarako autua eukan, nunbai, Jaungoikoak Atanasi deuna. Alderdi guztietatik etsai amofatuak yoakozan. Iru batzaf egin zituen afiotafak aren aufka ta bere izena aldeztuz jaiki ziran guztiak indafez lateririk jaurti zituen. Baita deuna bera be.

Konstantin'en ondorengo kaisera Julen sinesgaldua izan zan eta erbesteratu guztiei zigofa aldendu eutsen. Beraz Atanasi deunari be bai. Baña kistafak gure deunari eutsoen ospa ta maitasuna igafi ebaneko, ari bizia kentzeko agindu eban kaisaf sinesgalduak. Igesegiteko eskatu eutsoen afenga Atanasi'ri bere ikasleak. Alan egin eban; eta itxasontzi batean itxasoratu zan. Atzetik yoakon atzemaka kaisafaren ontzi bat. Kiñaldi baten bidez, iruzurtu zituan arerioak eta atzera ixilean uriratu zan. An tinkatu zan Julen kaisafaren eriotza arteraño.

Ufengo agintaria kistafa zan. Labufa izan zan, baña, aren agintearoa. Bereala eruan eban Jaungoikoak beregana. Agintari onen ondorengoa, bafiz, afiotafen aldezkari pufukatua izan zan. Balente izenduna. Laugafen aldiz uritik jaurti eben Atanasi deuna. Lau ilebeteen buruz bere aitaren ilobian ezkutaurik egon zan. Andik egiten zituan noizik beingo urtenaldi azkafak eta ben-beñeko eginbeafak bete ondoren, bere gordelekura biurtzen zan.

Gongotzañaren eske gafasika asi zan Alexandria'ko efia. Matxinadaren baten bildufean, deunari bakean izteko agindu eban Balente agintariak eta bere eleizaren zaintzara biurtu zan Atanasi. Il zan artean, sinismenaren garbitasunaren alde erne jokatu zan. Gongotzaintzan befogei urte eginda gero. Jaungoikuaren besoetan 373' gafen ofilaren 2'an il zan.

A.'TAR T.

ERRIJETATIK

MAÑARIA

AUTESKUNDIAK. — Igandeko auteskundiaren gurendia, geure aurkakuentzat ixan zan. Baña, gurenda ori, abeftzale gustijak zintzo jokatu bale-be, karlatafentzat etzan ixango. Iru notiñen autafkijen gora-beria baño etzan ixan gustija be ta. Au zala-ta, iru ta erdijak inguruan (abeftzaliak gotik gengozelako) karlatafak, batera ta bestera, apatxoska asi ziran... eta orduban... efepublikano batek, ikusifik abeftzaliak gurendia lortu biaf gendula, euren alderdira autafkijakaz joyazanak, karlatafen alderdira eroan ei-ebazan; eta gurendia onan lortu ei-eben. Izpafau, egija dala ta argifaltzeko diñustie). Beraz, banasian, iñoren laguntza barik, geu nagosi ixango gintzazan.

Eta, beste alderdijetara euren autafkijak emon ebezanak, benetako karlatafak eta efepulikanuak ete ziran..., ¡Bai zera! Karlatafen eta efepulikanuen aldetik aurkestu ziran zinegotzigei bi afobijetako (kanteretako) langile-buruak dira ba-ta... Ofetik atara kontuak...

Atzo entzun geban, erkaldafak, euren zinegotzigeyak, abeftzaliok zapaltziafen aurkestu ebezala. Ta neuk be, eneuke ezetzik esango; len karlatafak ixaniko batzuk, lanian aufenengo ikusi dodaz ta.

ERIJOTZAK.—Lengo astian il ziran, "Kurutze-Santu,,'ko Afizabalaga'taf Kepa gixona, Mazaga'taf Nikola, "Lafea,,'ko mutila ta Agifezabal'daf Kepe "Isuntza 'ko anderea. Jaunak zeruan euki begiz.

Sendikua'ri atsekabian laguntzen dautsegu.

JUAN-ETORIJAK — Igandian egon zan emen, Usaola'taf Kepa abeftzale zintzua. Eta Kepa, benetako abeftzalia dalako, igandian emen ikusi ebazan gauzakaz bijotza atsekabetuta ebala, iĩun be iĩun Bilbao'ratu zan...

—Egubaztenian aguftu geban emen, Etxezafaga'taf Luki Durango'ko abeftzale zintzua.

KUKUA.—Udabafiko txori begiko onen abesti samufa, orain amabost egun dirala, lenengoz entzun neban. Eta ogetik entzun nebalako, aldian lauzirikorik enebala entzun be. Baña, tira, ofegafik eztauzt ardura, esaten da-be ba, kukuaren otsa ogetik entzuten dan urtian, dirurik eztala biaf ixaten...

MAÑARIKO.

ARRATZUA

Igazi dan igandian iĩa onen 23'gafenau, ef onetan be auteskundiak ixan ziran. Gure auteskunde-lanak oso baketsu egin ziran, eta ondo urten be.

Goxeko zortziretako bakotxa bere lanetara ixil-ixilik abijatu zan, eta auteskundiak amaĩu afte bai bakotxak al ebana egin be.

Lana ugari egin gendun, baña ondiño emen geyago egin biaf.

Edozetara be baña aspaldijon gorakada polita egin dogu. Ditadore aldiko auteskundietan, saspi autafki baño ezkebaran ixan, ba, ta igazi dan igandekuetan, ostera, eun da amalau. ¿Gorakada polita ezta?

Axangiz'tik idazkitxu bat niganatu da, ta adazki onek diñostana auxe da; Axangiz'ko karlatafak ango jeltzaliei esan etsela, zortzi ziñegotziĩik iru emoten 'eutsezan, Afatzua'n, jeltzaliei, eurak, iru emongo eutsezela.

Afatzua'n, baña, euzkotaf abeftzalioi iru ziñegotzi ataraten lagunduteko baño lufera eratziĩa lufa janerazoteko laguntzale geyago idoro eukian.

Baña itxi geldi, aspalditxuko gorakadari jafaĩu ba'dagijogu, jafaĩu, urte aiko igazi baña ſen, iñok emonen begira egon barik autafki-bidez geuk irabazten ikasko dogu. Eta orduban, Afatzua'n, beste txori batek abestuko dausku.

Emen iñok emonguari begira egotia ezer egiten. Emen ezer eukiko ba'dogu euki, lan egin biafko da, ta gogoz egin be.

Eskefik asko Axangiz'ko idazkitxuri bidaldu daustanari.

AFATZU'KO TRUMOYA.

BUSTURIA'TIK

AUTESKUNDIAK.—Iñon garai andijak ixan ba-ĩira be, emekua ezta txikiĩonetarikua ixan.

Of ibili jakuz sosolisto edo ofetarikua ara ta ona, zein egunez, zein gabaz, "lanpo egin biaf dogu iñuela.

Badakixue "ilusiñotxuak" be gaste aldikuak ixan oi dira-ta, onek jayopafitxuak ixanik, euren amestxuakaz ibili biaf.

"Ogijagaz bakafik ezta bixi gixona, ezpada Urtzi'gandik datofen guztijagaz" esan eban Kisto'k. Onei be ederto eraman leyoe au.

Dana dafa be, gauzatxu bat argi imiĩ biaf dogu.

Ikusi da iñun gabaz-egiñikoen batzuk euren "pistolak" agirijan afopuztuta ibili dafezan Bilbao'tik ekartia emakumiak ori ikusirik etxeratuko ziran ustian? Etzirana naiko eurek garbiz ba-ebiltzen arpegia emoteko edo lotsa ziran? Eztozube ikusi zer egin daben "asesino" ofeik beste batzubetan eta Busturia lako efi batera joko jentia ekafi, Jaungoikuari eskafak egi ikusi dogu zuben zintzotasun gustija.

Jaungoikua baña, beti ondo dabiltzanen aldetik.

Ofegafik bijotz-bijotzez opatuten dautsegu Goikua'ri gure garai andi be andijaz ez bakafik eskeftafok zapaldu doguzalako, ezpada geure Euzkadi mafe onen gogo argiro ikusiko dogulako udaletxian.

Aufera Busturia'tafak ba. Eta beste batzuk ixan ez afen be, zati baterako dogu kanpayak eragozpen barik.

GOTAŕ BAT.

BIOTZ-BEGIETAN

Libro de poesías con traducción castellana

Xabier de Lizardi

(Prólogo de «Orixe»)

T. S. H.

AUDICIONES INTERESANTES PARA HOY, 2 DE MAYO

Conciertos sinfónicos

8,45, Viena. — Orquesta Sinfónica.
8,55, Huicen.
10,00, Hilversum. — "Requiem", de Brahms.
10,45, Leipzig. — Orquesta Sinfónica.

Conciertos vocales e instrumentales

4,30, Leipzig.—Berlín.
5,00, Varsovia. — Orquesta Filarmónica.
8,00, Bruselas núm. 2.—Orquesta Sinfónica.

Conciertos vocales e instrumentales

8,00, Varsovia.—Suiza alemana. —Programa yugoeslavo.
8,05, Langenberg.
8,30, Poste Parisien.—Programa Charpentier.
9,00, Bruselas núm. 1.—Música escandinava.
9,25, Munich. — Programa Von Schillings.
10,30, Hamburgo. — Concierto.

Óperas

7,30, Budapest. — "Otelo" (Verdi).
7,30, Praga.—"Astucia aldeana" (Dvorak).

Música de Cámara

8,00, *Suiza romana.*
8,45, Roma.—Sonata (Brahms).
8,00, Suiza romana.

Recitales

5,30, Deutschlandsender. — Piano.
6,15, Bruselas núm. 1.—Piano y violonelo.
10,15, Varsovia.—Conciones.
10,45, Stuttgart.—Violín.

Talleres de Lamiaco

LAS ARENAS. T. 97.805.

Construcción y reparación de maquinaria. Fresado de engranajes cónicos, rectos e helicoidales construcción de piezas para automóviles. Fundición de hierros y metales

IBAŕETA

Enparauko gixon jantziak Ametzaga'tar Urtado kalea 20 g,

JOSKINTZA SASTRERIA

TRINCHERAS y GABARDINAS Hurtado de Amézaga, 20

DOCTOR BENITO PETSCHEN
Partos. Enfermedades de la mujer.
Rayos X. Diatermia.
Prim. 17, entlo. T. 12.761 De 3 a 8
San Sebastián

LUIS ZATARAIN
MEDICO-DENTISTA
Hernani, 2., 1º - DONOSTIA

Dr. Antonio Echeto
Enfermedades de la infancia
Prim, 19. :: San Sebastián

Imprenta. Papelería. Artículos de escritorio. Urramendi, 19. Teléfono, 11.900 DONOSTIA

RELOJES DE TORRE
Lecea y Murua
VITORIA

Gran Garage Moderno
Reparaciones, suministros y accesorios
Calle Iparraguirre. Teléfono. 10-7-54
SAN SEBASTIAN

PONSOL, S. L.
Fundada en 1838
Sombreros y boinas
NARRICA. 4. DONOSTIA. 10.876

CASA ARZAC
PARAGÜERIA
Urbieta, 26. Teléfono, 12.537
DONOSTIA

Ferretería, cristalería y loza
Echeverría Hermanos
Calle de Urbieta, 10. Tl., 1-18-84
DONOSTIA

Tejidos y Confecciones
OTAÑO HERMANOS
Sastrería y camisería
San Juan, 11. T., 1-10-16. Donostia

Olaskoaga Hnos.
DROGUERIA — PERFUMERIA
Urbieta, 27. Tel. 15.530—Donostia

ALMACEN DE VINOS, ACEITES
José Manuel Alcorta Irazu
Servicio a domicilio
Aldamar, 4. Tel., 1-37-04. Donostia

ASCENSORES MUGUERZA
Zabaleta, 12 y 14 Tf. 12-765 - DONOSTIA
Gordoniz, 5 Tf. 11.496- BILBAO

VIUDA DE IGNACIO ZUBASTI
Ropa blanca Corsetería
Novedades
Camisería Corbatería
Urbieta, 24. DONOSTIA. Tl. 117-11

Taller mecánico de carpintería y ebanistería
Bernardo Goenaga
Urbieta, 56. DONOSTIA. Tl. 10-652

MIGUEL LARRE
MEDICO - DENTISTA
Churruca, 14, primero. Teléfono, 15.362.
DONOSTIA

Almacén de Vinos y Licores
HIJOS DE F. MARTINEZ
Narrica, 29. Puerto, 24. Despacho central: Urbieta, 52, DONOSTIA. Teléf., 10.886